

Balorezko proposamena

Gure enpresak emango duen zerbitzua **dibertsitate handikoa** da, janaria emango dugu, baina ez edozein janari. **Kultura** eta **herrialde desberdineko** janaria eskainiko dugu, jendeak jaki ez oso ezagunak dastatu ahal izango ditu.

Hori aprobetxatuz, **Euskal Herriko** kultura eta janaria ezagutarazi egingo dugu **Europa** eta **Asia** osotik, nahiz eta Euskal Herriko janaria nahiko ezaguna izan. Adibidez, **Ekialde hurbileko** jaki nagusiak **ez** dira oso **ezagunak** eta gure zerbitzuaren bidez jendeak ezagutu ahal izango ditu.

Denbora baten ondorioz herrialde baten janaria eskaini ondoren herrialdea edo kultura aldatuko dugu eta orduan jaki desberdinak jateko aukera izango dute gure bezeroek. Gainera **produktu freskoak** eskainiko ditugu eta dena guk egindakoa izango da, agian herrialde desberdin horietako jendea egon daiteke bezeroekin harremanetan jartzeko edota azalpen txikiak emateko haien kulturei buruz.

Prezioari dagokionez, **ez da oso altua** izango, jakiak egiteko erabiliko ditugun **produktuak** nahiko **sinpleak** izango dira eta ez dute prezio oso altua izango. Horrenbestez, klase ekonomiko ez oso altua duten pertsonen zuzendu daiteke. Gure **zerbitzua azkarra** izango da ere, horregatik eguerdian lanetik ateratzen diren langileak, bazkaltzeko atsedena gure **terrazan** igaro dezakete, **zerbitzua azkarra, merkea eta desberdina baita.**